

# Krisia hauteman

Irakurri artikulua eta aukeratu paragrafo bakoitza ondoen laburbiltzen duen ideia.

Gero, komentatu beheko puntuak zuen artean.



Aste honetan 10 urte bete dira Bigarren Mundu Gerraz geroztik bizi izan dugun krisi ekonomiko larriena hasi zela. Europar Batasunak eta beste zenbait erakundek amaitutzat jo dute krisialdia eta adierazi dute Batasuna indartuta irten dela garai zail hauetatik. "Krisi" hitzak esanahi bat baino gehiago du, normalean egoera zaila adierazten digu, baina berez aldaketa garaia da. Eta gure inguruan aldaketa sakonak izan dira alor guztietan.

Estatistika arauak diote bi pertsona dauden lekuan oilasko bat jaten badute, erdi bana eginda jan dutela, bietako batek osoa jan badu ere. Askorentzako latzak izan diren urte hauetan jende asko lanik gabe geratu da, beste askoren lan baldintzak nabarmen okertu dira eta gehienok pobretu egin gara. Aspaldi lanean ari direnak eta hasiberrien arteko aldea izugarri zabaldu da, eta batez ere, guztiok ohartu gara gure ezintasunaz eta ahuldadeaz. Oinarri sendoak ei zeuzkaten egiturek dar-dar egin dute, hauskorrek direla erakutsi digute.

Leku askotan ez dira ohartu garai berezietan ginenik, okerrago egotea ezinezkoa zaielako. Krisiaren ondoren gure herrialdeek erakusten dituzten datuak ikusita, aberastasunaz, gizarte babesaz edo oinarrizko zerbitzuez, munduko biztanleen 10tik 9k esango luke hona etorri eta hemen bizi nahi duela. Krisiak astinduta gure eskualde batzuentzat pobrezia eta oinazea izan dena, beste leku batzuen aberastasuna eta zoriona bilakatu da.

Krisi honek utzitako ikasbide nagusia, hala ere, alferrikakoa izango zaigu, egia dela jakin arren ez gaudelako betetzeko prest. Gure arazo larri guztiek bi eragile nagusi dituzte, gehiegizko populazioa eta neurriz kanpoko kontsumoa. Hazkundera mugatu eta gure beharrak asetzeko erak murrizten ez baditugu urte gutxi barru irteerarik gabeko bidean aurki gaitzke. Baina ez dugu ezer egingo, arazoaren larritasunaz ez garelako jabetzen, baina batez ere, gure sistema ekonomikoa ekoizpen gero eta handiagoan oinarrituta dagoelako, eta ez dugulako baliabiderik norabidea aldatzeko, krisi honek erakutsi arren garamatzen ibilgailua zuzenean amildegira dioala.

Juanjo San Miguel EITB.eus

- "Krisi" hitzaren esanahia azaltzen du.
- Azkenean atera gara krisitik.
- Egia da krisi handia izan dugula.
- Ez da krisirik izan.

- Gure sistema zer ahula den gelditu da bistan.
- Guk bestela uste badugu ere, estatistikek egia esaten dute.
- Era batera edo bestera, denok pairatu dugu krisia.
- Aspaldi lanean hasi zirenen lan-baldintzak okertu egin dira.

- Biztanleen % 10 ez litzateke hona etorriko.
- Krisiak gure eskualde batzuk bakarrik astindu ditu.
- Beste leku batzuetan baino okerrago gaude.
- Gehienek bizi nahiko lukete gu bezala.

- Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den.
- Urte gutxi ditugu arazoari aurre egiteko.
- Ez diogu arazoari aurre egin nahi.
- Krisiari esker, garbi geratu da arazoa.

## Orain komentatu puntu hauek:

- Ados zaudete erantzunekin?
- Zer iruditzen zaizue Juanjo San Migelek dioena?
- Zertan du arazoari? Zertan ez?
- Gure jokabidea aldatuko al dugu? Garaiz al gaude?
- Zer egin beharko genuke?



## Erantzunak

Aste honetan 10 urte bete dira Bigarren Mundu Gerraz geroztik bizi izan dugun krisi ekonomiko larriena hasi zela. Europar Batasunak eta beste zenbait erakundek amaitutzat jo dute krisialdia eta adierazi dute Batasuna indartuta irten dela garai zail hauetatik. "Krisi" hitzak esanahi bat baino gehiago du, normalean egoera zaila adierazten digu, baina berez aldaketa garaia da. Eta gure inguruan aldaketa sakonak izan dira alor guztietan.

- "Krisi" hitzaren esanahia azaltzen du.
- Azkenean atera gara krisitik.
- ✓  Egia da krisi handia izan dugula.
- Ez da krisirik izan.

Estatistika arauak diote bi pertsona dauden lekuan oilasko bat jaten badute, erdi bana eginda jan dutela, bietako batek osoa jan badu ere. Askorentzako latzak izan diren urte hauetan jende asko lanik gabe geratu da, beste askoren lan baldintzak nabarmen okertu dira eta gehienok pobretu egin gara. Aspaldi lanean ari direnak eta hasiberrien arteko aldea izugarri zabaldu da, eta batez ere, guztiok ohartu gara gure ezintasunaz eta ahuldadeaz. Oinarri sendoak ei zeuzkaten egiturek dar-dar egin dute, hauskorrek direla erakutsi digute.

- ✓  Gure sistema zer ahula den gelditu da bistan.
- Guk bestela uste badugu ere, estatistikek egia esaten dute.
- Era batera edo bestera, denok pairatu dugu krisia.
- Aspaldi lanean hasi zirenen lan-baldintzak okertu egin dira.

Leku askotan ez dira ohartu garai berezietan ginenik, okerrago egotea ezinezkoa zaielako. Krisiaren ondoren gure herrialdeek erakusten dituzten datuak ikusita, aberastasunaz, gizarte babesaz edo oinarrizko zerbitzuez, munduko biztanleen 10tik 9k esango luke hona etorri eta hemen bizi nahi duela. Krisiak astinduta gure eskualde batzuentzat pobrezia eta oinazea izan dena, beste leku batzuen aberastasuna eta zoriona bilakatu da.

- Biztanleen % 10 ez litzateke hona etorriko.
- Krisiak gure eskualde batzuk bakarrik astindu ditu.
- Beste leku batzuetan baino okerrago gaude.
- ✓  Gehienek bizi nahiko lukete gu bezala.

Krisi honek utzitako ikasbide nagusia, hala ere, alferrikakoa izango zaigu, egia dela jakin arren ez gaudelako betetzeko prest. Gure arazo larri guztiek bi eragile nagusi dituzte, gehiegizko populazioa eta neurritz kanpoko kontsumoa. Hazkundera mugatu eta gure beharrak asetzeko erak murrizten ez baditugu urte gutxi barru irteerarik gabeko bidean aurki gaitzke. Baina ez dugu ezer egingo, arazoaren larritasunaz ez garelako jabetzen, baina batez ere, gure sistema ekonomikoa ekoizpen gero eta handiagoan oinarrituta dagoelako, eta ez dugulako baliabiderik norabidea aldatzeko, krisi honek erakutsi arren garmatzen ibilgailua zuzenean amildegira dioala.

Juanjo San Miguel      EITB.eus

- Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den.
- Urte gutxi ditugu arazoari aurre egiteko.
- ✓  Ez diogu arazoari aurre egin nahi.
- Krisiari esker, garbi geratu da arazoa.